

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4466

*1966/2025 EBAZPENA, irailaren 23koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Tamara Chicón Narváez andrea zeladoreen arduradunaren (Biltegia) kargutik kentzen baita, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuan.*

Azaroaren 26ko 1496/2019 Ebazpenaren bidez, Tamara Chicón Narváez andrea zeladoreen arduradun (Biltegia) izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek,

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Tamara Chicón Narváez andrea zeladoreen arduradunaren (Biltegia) kargutik kentzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek, 2025eko urriaren 12ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Usansolo, 2025eko irailaren 23a.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentea,  
GEMMA FERNÁNDEZ PEÑALBA.